

SOCIALISTAS DE IRUN-IRUNGO SOZIALISTAK ETA EAJ-PNVren ARTEKO AKORDIOA 2015-2019
AGINTALDIRAKO IRUNGO UDALEAN

"IRUNEN ALDEKO ITUNA"

SARRERA

Joan den maiatzaren 24an irundarrek askatasun osoz bozkatu zituzten Udalean datozen lau urteetan izango dituzten ordezkariak.

Oraingoan ere Irunek erakutsi du askotariko hiria dela eta elkarrizketaren eta akordioaren aldeko apustua egiten duela. Egungo une ekonomiko eta sozialetan gure egitekoa da gehiengoaren akordioetara iristea, ordezkariak duten indar politiko guztiak errespetatuz, Udal indartsua bultzatu eta izateko, lanean erabakitasunez jarrai dezan herritarren ongizatearen alde, Irunen giza garapena eta garapen iraunkorra lortu ahal izateko.

Akordia sinatzen dugun bi talde politikook ziur gaude Irunek egonkortasun politikoa behar duela, bertan bizi diren gizonen eta emakumeen bizi-kalitatea hobetzeko bidean aurrera egin ahal izateko. Fruituak emango dituen egonkortasuna, baliabide publikoak behar bezala kudeatu ahal izateko, Udal gero eta hurbilagoetik eta gero eta eraginkorragotik, behar diren gizarte eta ekonomia alorretan aurrera egiteko politiketan are gehiago sakondu ahal izateko.

Kontuan izanik maiatzaren 24ko hauteskundeen ondoren gizarte irundarrak izan behar duen agintaldia, eta kontuan izanik halaber bi talde politikoei alderdi garrantzitsuak partekatzen dituztela diagnostikoaren eta Irunek behar dituen konponbideen inguruan, Irungo Udalerako 2015-2019 agintaldirako gobernu akordio hau aurkezten dugu jende aurrean.

Akordio honek etenik gabe adostasuna eta elkarrizketa bilatzera behartzen ditu bi aldeak, beren programetan dituzten aldean gainera. Era berean, Udalbatzan ordezkariak duten gainerako talde politikoei ere horixe bera egiteko konpromisoa hartzen dute, jakinik alderdi irekia eta hurbiltasuna beharrezkoak direla gauzak egiten jarraitzeko.

Demokrazian jarduteko, erronka berriak ere planteatu behar dira garai berri hauetan, eta bide horretan, zintzotasuna, gardentasuna eta parte hartzea ez dira gauzak egiteko moduak, funtzio publikoa eta politikoa garatzeko modu bakarra baizik.

KUSPEGI PARTEKATUA IRUNERAKO LEHENTASUNEI ETA HELBURUEI BEGIRA

Irundarren nortasun ezaugarria da elkarbizitza. Urte hauetan indartu egin da, baina etorkizunera begira ere zaindu egin behar dugu, Irunek modu harmoniatsuan aurrera egitea nahi badugu.

1.- Gure jardunaren funtsezko eta lehentasunezko helburua izango da Irun aukerak eskainiko dituen hiria izatea, hirian jarduera ekonomiko gehiago izatea enplegu gehiago sortzeko, tokiko enpresen sorrera, finkapena eta garapena bultzatuz eta inbertsio berriak erakartzeko politika aktiboa bideratuz.

2.- Irunek hiri solidarioa izaten jarraitu behar du, okerren pasatzen ari direnez kezkatua eta behar duenari laguntzeko prest betiere.

3.- Hiri parte hartzailea nahi dugu, udal aurrekontu parte hartzaileak eta gardentasun ataria, izateko eta egiteko modu bat erakutsiko duena Udaletik.

4.- Hiri arduratsu, eraginkor eta iraunkorraren eredurantz egin behar du aurrera Irunek, bere garapenaz arduratuz, bizi-kalitate egokiarekin eta kontzientzia kolektiboarekin. Era berean, euskara bultzatzeaz kezkatu behar du.

IRUNERAKO LEHENTASUNEZKO PROIEKTUAK

Aurreko puntuekin bat eginez, hirirako neurri eta lehentasunezko proiektu batzuk abian jartzeko konpromisoa hartzen dugu, proiektu partekatuak eta adostuak, nahiak batzeko eta adostasun handiak lortzeko gaitasunarekin lidergoa duen gobernu sendo batetik.

Irundarrok gara, geure Udalarekin, gure hiria hoberen ezagutzen dugunak eta elkarrekin joateko bidea marratzen jarraitu nahi dugu, beste batzuek ez dezaten erabaki geure etorkizuna.

Agintaldian zehar kudeatuko diren ekintza batzuk aipatuko ditugu ondoren, baina herritar guztiak ordezkatzeko konpromisoa hartzen dugu Udalbatzaren Osoko Bilkuraren, Gobernu Programa baten bidez, bertan xehe azalduko baititugu aurrera eraman nahi ditugun ekintza guztiak 2016ko aurrekontuak onartu aurretik.

Bestalde, beste instituzio batzuen (Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Gobernu Zentrala) ekarpena behar duten ekintza guztietatik lehentasunez garatu beharreko proiektuak, eta bigarren mailakoak, bereiziko ditugu, dauden aurrekontu aukeren arabera, Gobernu Programan baldintza hori islatuta eta horretarako atal espezifiko bat sortuta.

1.- Etikaren, gardentasunaren, gobernu onaren eta parte hartzearen aldeko ituna irundarrekin

- Argi eta garbi eta inolako zalantzarik gabe sinatuko dugu eta beteko dugu 2014ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran onartutako Kalitate Institutuzionalerako Konpromiso, Jokabide eta Gobernu Onerako Kode Etikoa, alkateak eta bi taldeetako zinegotziek, kargu publikoaren egitekoak eta obligazioak betetzeko orduan aintzat hartu beharreko jokabidearen eta funtsezko balioen oinarritzko ildoak finkatzen dituen, gobernu akordioa sinatzeko momentuan.

- “Kristalezko hormak” dituen Udalaren adierazpen gisa www.irun.org gunean jasotako Udal Gardentasun Ataria etenik gabe garatzeko konpromisoa hartzen dugu.

- Herritarrek Parte Hartzeko Araudi berria egingo dugu garrantzizko proiektu guztietan Herritarren Parte hartzea bermatzeko, ziur baikaude demokrazia zuzenak osatu eta aberastu egiten duela demokrazia parte hartzailea.

- “Alkatea auzoetan” programarekin jarraituko dugu, parte hartzeko eta herritarrekin harremana izateko bide eraginkorra baita.

- Aurrekontu parte hartzaileen prozesuaren esperientziaren ondoren, berretsi egiten dugu horretan jarraitzeko eta agintaldian zehar luzatzeko konpromisoa.

- Ikastetxeekin haurren aurrekontu programa bati ekingo diogu, praktikara eramateko hainbat ekintza jaso ahal izateko.

- Dagozkien gaietan gazteek parte hartzeko mekanismo egokiak abian jarri eta finkatuko ditugu, hiriko egunerokoan gazteen parte hartzeari balioa emanez.

- Aurrera egingo dugu 24 orduz irekia egongo den Udala lortzeko bidean, tramiteen % 100 on-line egin ahal izateko, HAZ Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatera zabalduz.

2.- Aukerak eskainiko dituen Irunen aldeko ituna

Irunen garapenaren helburua da tokian jarduera sendoa bultzatu eta indartuko duen hazkunde ekonomikoaren eredia lortzea, irundarrek beren hirian bizitzen eta lan egiten jarraitzeko aukera izan

dezaten ziurtatzeko. Esparru egokia sortu behar da, gure merkataritza eta zerbitzuen sektore sendoa, eta baita garraioa eta logistika ere, finkatzen joateko. Baina horrez gain, enpresa aniztasuna bilatu behar da eta ekintzaileei lagundu egin behar zaie. Gure kokaleku estrategikoak duen ahalmenean eta irundarren talentuan oinarritu behar du eredu horrek. Eredu ekonomiko zentzuduna, segurua, anitza eta iraunkorra bilatu behar dugu, baldintza erakargarriak eskaini behar ditugu inbertsio berriak erakartzeko eta gure enpresak sendotu ahal izateko. "Irun Ekintzan" Akordioaren urratsei jarraituko diegu, eragile sozial eta ekonomikoen eskutik: sindikatuak, enpresak, ikasketa zentroak eta Udala, enplegu iraunkorragoa, seguruagoa, diskriminaziorik gabea, lortu ahal izateko.

- Horregatik, bekak bultzatuko ditugu Irungo enpresekin elkarlanean, gazte irundarrei lehen lan aukera eman ahal izateko.

- Irun On komunitatea bultzatuko dugu, hainbat arrazoiengatik Irundik kanpo dauden pertsonen balio eta esperientzia guztiak eta egiten jakite hori jaso ahal izateko. Era berean, abian jarriko da "Talento Made in Irun" programa.

- Unibertsitatearen presentziak eta gazte irundarren prestakuntzak hertsiki loturik egon behar du aukera profesionala bertako enpresetan ematearekin. Unibertsitateak bere presentzia handitzen jarraitu behar du, espezialitate gehiago eskaini behar ditu, gazteentzako etorkizun hobearen bermea izango baita hori. Bide horretatik Mondragon Unibertsitatearen IBF proiektuaren garapena bultzatuko dugu Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera.

- Langabeziak sortzen dituen arazoen barnean, bada kolektibo bat bereziki jasaten duena, 45 urtetik gorako langabetuena, hain zuzen ere. Horiek, gehienetan, familia kargak izaten dituzte, eta gainera, lan merkatuak traba handiagoak jartzen dizkiete beste enplegu aukera bat emateko orduan. Horregatik, kolektibo horrentzako plan berezia sortzea proposatzen dugu, agente zibikoan lanak egiteko kontratatuz, herritar guztiei helarazteko jokabide kolektibo hobe baten balioak eta udal ordenantzak betetzeko eskatuz. Gainera, diru-laguntza lerro zuzena bideratuko da hiriko enpresetan irundarrak kontratatuzeko.

- Bidasoa Activa-Bidasoa Bizirik Garapen Agentziarako Plan Estrategikoa prestatzea, ekintzailetzari, prestakuntzari eta enplegu bilaketari laguntzeko helburuak eguneratzeko, Udalera eta hiriko gizarte eragileengana zabalduko den sarean lan eginez.

- Irungo enpresen lehiakortasuna eta nazioartekotzea hobetzeko programak indartu eta zabaltzea.

- Enplegua sortzen lagunduko dugu, inbertsioetarako partidak handituz eta hirian obra txikiak eginez. Bertako langileen kontratazioa bultzatu nahi du neurri honek.

- Merkataritzaren alorrean ahaleginak egingo ditugu saltoki berriak irekitzen dituzten ekintzaileei laguntzeko, lokalen alokairuak ordaintzeko diru-laguntza emanaz, eremuak eta laguntza aukerak bultzatuz. Arreta berezia emango zaio gure Alde Zaharreko ekonomia suspertzeari, merkataritzarekin eta ostalaritzarekin loturik.

- Laguntza ekonomikoak edo/eta kreditu bigunak lortzeko aukera bultzatuko dugu beren negozioetan berritze lanak egin behar dituzten merkatarientzat, horrela lagundu egingo baita gure hiriko merkataritza etenik gabe hobetzen.

- Merkataritza Mahaia sortuko da, bertan ekimen publikoa nahiz pribatua bilduta. Lana sarean egin, merkatariek, ostalariek, Merkataritza Ganberak eta Merkataritza Federazioak parte hartzeko, besteak beste.

- Irtenbide bat emango diegu erabiltzen ez diren industria lurzoruei. Uste dugu Udalak eragile aktibo bilakatu behar duela lurzoru eta pabilioi horien kudeaketan, abandonu denbora ahalik eta txikiena izan dadin.

- Lehen sektorea bultzatuko dugu, malgutasuna, erraztasunak eta laguntza eskainiz nekazaritza jarduerak ezartzeko orduan eta azpiegiturak eta oinarrizko zerbitzuak bideratuz. Irungo landa eremuek beren nortasunari eta idiosinkrasiari euts diezaien, landa eremua baldintzarik hoberenetan edukitzeko ekintzak bultzatuko ditugu eta hurbiltasuna bultzatuko dugu ekoizleen eta kontsumitzaileen artean.

- Amaituko ditugu Irungo erdialdera hotel inbertsio bat erakartzeko kudeaketak, eta horri esker osatuko dugu San Juanen aurreikusitako ekipamenduen zati bat, ziur baikaude gaitasun izugarriak dituen lekua dela Irun.

- Era berean, badakigu gure hirian gaitasun handia duela landa eta natura turismoak. Hori bultzatzeko, Siutz baserria berreraikiko dugu Meaka auzoan.

3.- Irun solidarioaren aldeko Ituna

Krisi ekonomikoaren ondorioak gogorak izaten ari dira lana galdu duten pertsonentzat edo beren baliabide ekonomikoak nabarmen murriztu zaizkienentzat .

Gizarte politikak dira gure nortasunaren oinarri eta horrexek bereizten gaitu besteetatik. Behar izan duenarengandik hurbil egon da Udala, erantzuna eman die etxea galtzeko zorian zeudenei, lana galdu dutenei, eguneroko bizitza egiteko zailtasunak zituztenei. Aurrera jarraitu behar dugu erantzun egokiak eta zehatzak ematen, elkartasuna, berdintasuna, herritarren oinarrizko eskubideak, bizikidetzaz eta gure zaharrekiko arreta bultzatzen eta defendatzen.

- Hipoteken ordainketa arazo larri bilakatu da eta horren aurrean Udalak erantzun egin du bidegabekeria sozial hori saihesteko. Horregatik Udalean baliabide ekonomikoak eta pertsonalak bermatzeko konpromisoa hartzen dugu etxegabetzeak baztertzen jarraitzeko.

- Udalak arazo honetan lan egiten duten gizarte eragileekin sortutako Mahaiari eutsiko diogu.

- Behar duten pertsonen laguntza eta orientabideak bermatuko ditugu, aholkularitza pertsonalizatua emanez udal ordainketen antolamenduan eta zatikapenean.

- Aldundiarekin akordioa bultzatuko dugu Arbes auzoan Egoitza berria eraiki dezan, kontuan izanik Udalak jada eskaini dituela udal lurrak.

- Udalak orain dela gutxi hasi duen ildoari jarraituko diogu adinekoren lokalak auzoetara hurbiltzeko, beste bi egokituta Anaka-Puianan eta Arbes-Palmera Monteron.

- Jakinik garai hauetan familiak karga ekonomiko handiak jasaten ari direla eta horrek beren gastuak lehenestera behartzen dituela, "Erosi eta Ikasi" programa mantentzea proposatzen dugu, Irungo dendetan eskola materiala erosteko laguntzak, eta "Irun familiar" programa abian jartzea kultur jardueretan eta kirol jarduera fisikoan sarbidea izateko, abonua murriztuen bidez.

4.- Aurrera doan Irunen aldeko Ituna, Irun eraginkorra eta iraunkorra

Aurrera egin nahi dugu Irunen hiri espazioa hobetzeko bidean, ekintzak eta esku hartzeak egin hirian eta mugikortasun iraunkorarekin loturik, Irungo gizartea, kultura eta ekonomia suspertu ahal izateko. Herritarren topagune berriak sortuko dituen eredurantz egin nahi dugu aurrera, protagonismo handiagoa eman nahi diegu oinezkoari eta bizikletari. Inbertsio handirik egin gabe eta erosoago eta egokiago bilakatuz, espazio publikoan esku hartze xumeak eginez.

Gainera, gure Bidasoa ibaiaz gozatu nahi dugu. Beste instituzio batzuekin elkarlanean jarduteko apustua egiten dugu, proiektu estrategiko batzuk aurrera ateratzeko, badia suspertzea eta bidegorrien garapena, esate baterako.

Bestalde, azken urte hauetan etxebizitza publikoaren beharra ez da jaitsi, bai ordea familien eta gazteen aukera ekonomikoak; izan ere, askok eta askok ezin dituzte etxebizitzak erosteko kredituak lortu eta administrazioek bultzaturik alokairu erregimenean etxebizitza eskaintza handiagoa egiteko eskatzen ari dira. Egoera horren aurrean, alokairu erregimeneko etxebizitzak eraiki eta merkatuan jartzearen alde egingo dugu lan, irundar askorentzat larria den arazo bati konponbidea eman ahal izateko.

Hiriaren interesak defendatzen dituen gobernu batetik, izaera estrategikoko proiektuak bultzatu eta bideratuko ditugu kudeaketan edo/eta finantzazioan inplikazioa behar den lekuan, beste administrazio batzuekin batera.

- Gobernuaren, Aldundiaren eta Udalaren artean Hitzarmena sinatzeko ahalegina egingo dugu, datozen 8 urteetan alokairuan emateko 400 BOE eraikitzeke San Migel-Anakan jada eskura dagoen lurzoruan.

- Era berean, Eusko Jaurlaritzarekin adostuko dugu Alberto Larzabal eta Aduana kaleen artean eman zitzaion udal lursailean alokairuan hartzeko 40 apartamentu eraikitzea, denboran mugatua, bere buruaren jabe izan nahi duten gazteei lagundu ahal izateko.

- Irunvitik, Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta, proposatuko dugu Oñaurerako alokairuko 64 BOE etxebizitzetatik ehuneko jakin bat 35 urtetik beherako gazteentzat izatea.

- Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta, etxebizitza berrituak edo/eta hutsik daudenak merkatuan jartzeko programak eta neurriak bultzatuko ditugu.

- Bultzatzen ari den Txingudi plan zuzentzaileak balio behar du dagokien administrazioek finantza alorren konpromisoa hartu eta jardun nahi izateko, Badiako babes eremua erabat garatu ahal izateko.

- Testuinguru horretan, Bidasoa ibaiaren ertzean Behobiatik Osinbiribilera oinezkoentzako pasealeku eta bidegorri berria eraikitzeke konpromisoa hartzen dugu. Gure Bidasoa ibaiaz gozatu nahi dugu eta Behobia hiriaren gainerakoarekin lotu; hori guztia Aldundiak Irungo bidegorriak Hondarribiarekin eta muga Hendaiarekin lotu ditzan esku hartzeko beharrezkoen barnean, oinezkoentzat nahiz bizikletentzat hiru hiriak egiaz lotuta gera daitezten.

- Administrazio desberdinekin elkarlanean, badiako hiru hiriak lotzeko Bidasoa ibaiaren ertzetik oinezkoen nahiz bizikleten bideen eraikuntza bultzatuko dugu.

- Autobus geltokiaren eraikuntza sustatuko dugu Aduana kaleko ibilgailuen gordetegiko egungo orubean. Horri esker, azkenean konponbidea emango zaio gure hirian gelditzen, hiritik igarotzen eta hirira iristen diren autobus lineak antolatzeke beharri.

- Trenbide esparrua suspertzeko Protokoloa abian jarriko dugu eta Espainiako Gobernutik beharrezko konpromisoak bultzatuko ditugu bide horretatik aurrera egiteko.

- Aldundiarekin akordioa lortuko dugu hiriaren hegoaldean saihesbidea eraikitzeke. Irungo erdiguneko trafikoa arintzen lagunduko du ingurabide horrek eta lotura azkar eta erabilgarri bilakatuko da Lapitze, Larreaundi, Alde Zaharra, Arbes eta Behobia auzoentzat.

- Era berean, A-8 autopistarako sarbide berria kudeatuko dugu Oñaureretik.

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lan egingo dugu A-8 autopistan ordainsaria kentzeko Kateatik Behobiara.

- Zubietan jada erreserbaturiko eremuan kirol gune bat diseinatu eta bultzatu behar da, atletismoa eta errugbia egiteko aukera errealtate bihurtzeko, beste kirol modalitate batzuen artean, hirigintza tramiteak hasi eta Gobernuarekin nahiz Aldundiarekin Irunen egingo dituzten diru ekarpenak adostu ondoren, instalazioak lekualdatzeko Europar Batasunak ezarritako epeak betetzea bermatuz.

- Olaberriako Harana Babesteko Plan Berezia bultzatuko dugu.

- Kutsatuta dauden udal titularitateko lurzoruen deskutsatzea identifikatu eta aurrera eramango dugu, Olaberrian mindek eragina izan duten lurrei lehentasuna emanez.

- Apustu irmoa egiten dugu 5. edukiontziaaren alde, txartel magnetikoarekin, hondakinak murrizteko eta hiriko zaborra kudeatzeko formula egokiena baita, eta hori guztia hondakinaren % 60 birziklatzeko helburuaren barnean.

- Hiririari zabaldu behar zaizkio Txingudi Tennis Klubeko kirol instalazioak, aire zabaleko igerilekua barne, eta haraino garraio publikoan joateko aukera bermatu.

- Urantzu pilotalekua eraberrituko dugu, Alde Zaharra berritzeko lana osatuz.

- Herritarren segurtasunean aurrera egiteko, Ertzaintza eta Udaltzaingoa gizarte erakundeekin komunikatzeko bide berriak bultzatuko ditugu, segurtasun arazoak identifikatzeko eta ahalik eta azkarren konponbidea eman ahal izateko.

- Udaltzaingoko agenteen prestakuntza jarraitua bultzatuko dugu.

- Euskararen erabilera normalizatzeko bidean lan egingo dugu eta euskara doan ikasteko programak bultzatuko ditugu langabezia daudenenentzat.

- Euskararen erabilera bultzatuko dugu udalaren barnean eta udalaren eta herritarren arteko harremanean.

- Elkarlanean jardungo dugu euskara bultzatzen duten eragileekin eta kolektiboekin.

- Eskola orduz kanpo euskara erabiltzeko kultur, kirol eta jolas jarduerak antolatuko ditugu haurrentzat eta gazteentzat.

- Gizarte esparru zehatz batzuetan euskararen erabilera areagotu dadin lagunduko dugu, merkataritzan, enpresetan eta kultur nahiz jolas jardueretan, esate baterako.

- Ikastetxe publikoak irekitzeko programak aztertu eta garatuko ditugu haietan 10 – 15 urte arteko neska-mutilentzat jolas jarduerak egiteko asteburuetan eta jaiegunetan.

- Alor sozio-ekonomikoa indartzeko programak bultzatuko ditugu, eskola porrotari aurrea hartzeko.

- Udal liburutegi berrian gazteentzako “ikasteko” plaza gehiago jarriko ditugu, ordutegi malgua eta egokia eskainiz, azterketa garaietan batik bat.

- Aisia parte hartzailea bultzatuko dugu programa erakargarriak garatuz hiriko gazteenen eskariei erantzun ahal izateko.

- Berdintasunaren eta baterako hezkuntzaren alorrean sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak bultzatuko ditugu Irungo familietan eta ikastetxeetan.

- Ikust-Alaia eraikinean Irungo Museoa sortuko dugu bertan bildu ahal izateko hiriaren historia eta nortasuna, erakusketa iraunkorarekin, Luis Mariano izanik haren adierazgarri handienetako bat.
- 2016ko aurrekontuak onartu aurretik Auzoetako Plana prestatzeko konpromisoa hartzen dugu.

UDALAREN FUNTZIONAMENDUA

- Osoko Bilkurari Udal Araudi Organikoa aurkezteko konpromisoa hartzen dugu, Udalarekiko harremanean herritarren eskari berriei erantzun ahal izateko, batik bat herritarren parte hartzeari dagokionean.
- Udalaz kanpoko mozioak salbuespena izango dira, eta haiek erabakitzeko instituzio adierazpena eta bozeramaileen batzordea erabiltzeko aukera miatuko da.
- Presazkoak diren mozioak salbuespena izango dira. Presarik ez badago, aurkako botoa emango da eta bozeramaileen batzordera bideratuko dira.

AKORDIOAREN FUNTZIONAMENDU ARAUAK

Udal Gobernuak behar bezala funtziona dezan, akordioa hau sinatzen duten udal talde politikoei barne funtzionamendurako arau batzuk errespetatzeko konpromisoa hartzen dute:

- 1.- Osoko Bilkuran bi udal taldeen eginbeharra izango da Udal Gobernuari eta arlo bakoitzari etengabe sostengua ematea.
- 2.- Akordioaren jarraipen Batzordea sortuko da bi udal taldeen artean, udal taldeen jarduna koordinatzeko eta kasu bakoitzean egokitzat hartzen diren erabakiak hartzeko elkarren artean adostuta.
- 3.- 2016ko aurrekontuek 2015. urterako onartutakoak hartuko dituzte erreferentzia gisa. 2015-2016 agintaldirako aurrekontuen prestakuntza, arlo bakoitzak aurrekontuetan izango duen tamainari eta proportzioari dagokionean, bi taldeen artean erabakiko dute aurrekontu proiektua prestatzeko prozesuaren hasieran, betiere abiapuntu edo erreferentzia gisa hartuta, alde batetik, arlo bakoitzak aurreko ekitaldian burututako gastua eta diru-sarreraren aurreikuspena. Hala ere, urtero eta urteko aurrekontu proposamena egin aurretik, akordioaren dokumentuan islaturiko helburuei eta lehentasunei erantzuteko lehenesten diren urteko jarduerak finkatuko dituzte ordezkariak, eta aurreikuspen ekonomikoa ere egingo dute. Erabakiak adostasunez hartuko dira betiere.
- 4.- Edozein ekimen, udal aurrekontuari begira ekimenak edo/eta zuzenketak aurkeztea barne, alde aurretik eta beharreko denborarekin jakinaraziko zaio gobernu taldeari, erabaki positiboa lortu ahal izateko.
- 5.- Udal gobernuak garatzen ari den jardueren aurrean beste taldeek aurkeztutako ekimenei dagokionean, Akordioa sinatzen duten taldeen jarrera adostua lortu beharko dute. Kanpoko kontuei dagozkienak, baina udal politikan eragina dutenak bi taldeen artean kontsultatu beharko dira alde aurretik, ahal den neurrian bederen adostasuna lortu ahal izateko. Gainerako kasuetan, jakinarazi ondoren, talde bakoitzak bere jarrera ideologikoak eta programak defendatu ahal izango ditu.

6.- Protokoloari dagokionean, prentsarekiko harremanetan eta ekintza ofizialetan, Gobernu bakarraren irudia emango da, adostasunez eta modu partekatuan jarduten duen gobernu erakutsiz. Era berean, Alkatearen eta ordezkarien protagonismoa bermatuko da. Irungo Udaleko Alkatetza Kabinetearen esku egongo da alderdi horien koordinaketa.

7.- Duten izaeragatik eta behar bezala aurrera eramateko beste administrazio batzuen (Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Espainiako Gobernu, Instituzio Europarrak) kudeaketa eta lana behar duten proiektuetan beharreko bideak finkatuko dira planteatutako helburuak eraginkortasun handienez lortu ahal izateko, eta topaketa dinamika eta lidergo harreman partekatuak ere bi udal taldeen artean.

Herritarrekiko harremani eta instituzio arteko negoziazioen egoeraren informazioari dagokionean, Irungo interesak defendatzea izango da betiere araua.

UDALAREN ARDURAPEKO ALORRAK

EAJ Udal Taldea hiru kiderekin sartuko da Gobernu Batzarrean.

- Obra eta Bide Publikoen ordezkari (Irungo Sozialistak)
- Hirigintza, Diziplina eta Etxebizitza ordezkari (EAJ)
- Garapen Iraunkor eta Mugikortasun ordezkari (Irungo Sozialistak)
- Hiri bultzada, Ekonomia eta Ogasun ordezkari (Irungo Sozialistak)
- Herritarren Segurtasuna eta Langileria ordezkari (EAJ)
- Auzoak eta Herritarren Parte hartzearen ordezkari (Irungo Sozialistak)
- Gizarte Ongizatearen ordezkari (Irungo Sozialistak)
- Euskara ordezkari (EAJ)
- Kultura Ordezkari (Irungo Sozialistak)
- Hezkuntza eta Gazteria ordezkari (EAJ)
- Kirola Ordezkari (Irungo Sozialistak)

Bidasoa Biziriken Lehendakari Hiri bultzada, Ekonomia eta Ogasun ordezkari bere gain hartzen duen Zinegotziak beteko du.

Alkateak, Ordezkariarekin bat, izendatuko du dagokion arloko Zuzendaria.

Alkateordetzak:

Lehenengoa: Irungo Sozialistak

Bigarrena: EAJ

Hirugarrena: Irungo Sozialistak

Laugarrena: EAJ

Bosgarrena: Irungo Sozialistak

Seigarrena: EAJ

Zazpigarrena: Irungo Sozialistak

Zortzigarrena: Irungo sozialistak

Irunen, 2015eko uztailaren 22an

Irungo Sozialistak

EAJ-PNV